

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako bide-sarean abiadura kontrolatzeko prebentzio-kanpaina egingo da, abuztuaren 15eko zubia dela-eta

Foruzaingoak ere trafikoko lau zerbitzu berezi burutuko ditu datozen egunetan, kirol-probak eta gertaerak medio

Jueves, 11 de agosto de 2011

Foruzaingoko Bide Segurtasuneko Dibisioak bere ohiko zerbitzua areagotuko du Nafarroako errepideetan, "Ama Birjina Abuztukoaren" jai-zubia, abuztuaren 15a, eta oporretako hamabostaldiaren aldaketa direla-eta. Egun horietan, trafikoa eta ibilgailuen joan-etorriak nabarmen gehituko dira, eta horretan eragina izango du, baita ere, Foru Erkidegoko herri askotan zaindariaren jaiegunak hasteak.



Foruzaingoak alkoholaren eta beste substantzia batzuen kontrolak egingo dizkie abiadura-muga gainditzen duten gidariei.

Iteera-operazioa, ostiral (abuztuak 12) arratsaldean hasiko da larunbata arratsaldera bitarte. Denboraldi horretan joan-etorri gehienak izatea aurreikusten da; itzulerarik handiena, berriz, abuztuaren 15ean, astelehen arratsaldean, izango da, jai-eguna baita. Era horretan, arratsalde horretarako ere abiadura kontrolatzeko zerbitzua aurreikusi da.

Foru Erkidegoko bideetan ezbehar-tasa murrizte aldera, aldirika poliziaren presentzia gehituko da, eta abiadura eta alkoholaren kontsumoa kontrolatzeko prebentzio-kanpaina egingo da. Horretan arituko dira Iruñeko eta Tuterako komisarietako Bide Segurtasuneko operazio-taldeak. Baimendutakoa baino abiadura handiagoa antzematen zaien gidari guztiei alkohola eta substantzia psikotropikoak detektatzeko proba egingo zaie.

Foruzaingoak abiadura kontrolatzeko kontrol mugikorak ezarriko ditu Foru Erkidegoko komunikazio-bide nagusietako puntu zehatzetan; esate baterako, Nafarroako Autopista (AP-15), Euskal Herriko eta Aragoiko autopista (AP-68) edo Done Jakue Bideko (A-12) edo Pirinioetako (A-21) autobietan.

Foruzaingoak gidariei gogorarazi nahi die kontu handiz ibiltzeko eta bolantean arretaz jokatzeko, bai opor-garaiko joan-etorrietan, bai joan-etorri laburragoetan, inguruko herrien artean edo hirigunean egiten direnetan.

Trafikoko lau zerbitzu berezi abuztuaren 15eko zuzian

Foruzaingoak trafikoko lau zerbitzu berezi burutuko ditu datozen lau egunetan. Bihar, ostirala, Sunbillako Udalaren XVI. Trofeoa txirrindulari-karrera izango da; hots, 67 kilometroko proba, eta, 10:00 etatik aurrera, errepide hauetako trafikoa partzialki harrapatuko da: Iruña-Behobia (N-121-A); Iruña-Frantzia Baztan aldetik (N-121-B); Belateko portua (NA-1210); eta Oronozko ibilaldia (NA-8303).

Larunbatean, hilaren 13an, beste txirrindulari-proba bat egingo da Legarian; hau da, ALSA IV. Trofeoa, eta, 18:00etatik aurrera, ondorengo errepideetatik pasako da bigarren mailako sarean: Lizarra-Gasteiz (NA-132-A); Olexua-Arroitz (NA-7400); Murieta-Okoko (NA-7451); Allo-Antzin (NA-6340) eta Galar-Viana (NA-1110). 55 kilometroko proba izango da.

Astelehenean, abuztuaren 15ean, Foruzaingoak Auritzerako sarrerak kontrolatuko ditu goizeko 8:30etik aurrera, eskulangintza-azoka egingo baita. Iruña Luzaiderekin lotzen duen errepidea (N-135) hartuko da. Azkenik, egun berean, Ultzama Ibarako Mendiko XIV. Triatloia jokatu da, eta, 11:00etatik aurrera, Lizaso-Orkin (NA-4230) eta Larraintzar-Iraizotz (NA-4161) errepideak hartuko dira.